

LAU HAIZETARA EUSKALDUN ELKARTEA PAUSORIK PAUSO



ZUZENDARITZA BATZORDEAK

Udal Administrazioan

Lerro hauek argitaratu orduko badira zazpi hilabete gure herrian Lau Haizetara euskaldun elkarte sortu genuenetik. Orduan gogo handiz jarri genuen martxan honelako elkar-
te ibiltzeko behar zen makineria. Baina hori ez da garrantzikoena izan bi batzar orokorretan elkartzera eraman gintuen motibazioan, hau da, elkarte ez da azken helburua, baizik eta gure hizkuntzaren eguneroko erabilera areagotzeko ahalegin serioak egitea.

Hilabete segida honetan zenbait proiektu jarri dugu abian. Erreterria-Oreteran euskararen egoera arakatu zuen Siadeco txostenaren emaitzak aztertu eta euskararen normalkuntza soziala eskuratzeko teoriak eta normalkuntza hori lortzeko tresnak landu ziren soziolinguistika ikastaroan, Udaleko Euskara Batzordearen laguntzaz. Ikastaro horretatik sortutako lantalde baten inizatibaz gure herriaren lehenean eta orainean erreteriar euskaldun ospatsuen bizimodua eta historia jaso nahi da biografi bilduma batean. Halaber, herriko kale eta plazetan eta aretoetan euskal kulturari tokia zabaldu zaio Ostiral Kulturaren bidez eta herriko hainbat elkarteri esker: danborrada, musika kontzertu, bertso saio, euskal afari, etabar. Elkarte, klub eta beste talde batzuetan euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzeko bidean gaude, horietan euskararen ahotsa entzun eta eguneroko presentzia eskeintzea hizkuntza normalkuntzan urrats sendoa ematea baita. Kultura, euskalgintza (euskaltegien zeregina azpimarratu nahi genuke) eta irakaskuntza alorreko elkartei eskeini nahi diegu hitzarmenak sinatzeko aukera eta beren egoeratik abiatuta normalkuntzarako pausoak emateko laguntza; baina bereziki kirol eta gazteen munduari lotutakoei hurbilduko gaitzaizkie.

Bestetik, herriko euskaldunek idatzi eta aldi berean beraiei zuzendutako aldizkaria ere proiektu gisa lantzen ari gara, non euskaldunok herriko albiste, kontu, bizitza, etabar euskaraz jasoko genukeen. Aldi berean, euskara ikasten ari eta maila jakin batera iritsi diren euskaldunberriei "Arnasberri" izeneko

mintza praktikatzen taldeak osatu nahian gabiltza, hizkuntza normalkuntzan benetan zeregin handia duten euskaldunberriei eguneroko hizketarako espazio eza nabarmena baitute.

Hau da une honetan Lau Haizetarako lagunok esku artean daukaguna. Oraingo honetan gure buruari jarritako helburu nagusietako bat euskaldunak hizkuntzaren inguruan elkar-
te da Lau Haizetararen bidez, horixe baita tankera horretako topagune izan nahi duten elkarten zergaitia, besteak beste. Gaur egun ehun bat bazkide gara, baina horiek baino askoz ere gehiago izatera iritsi dugu pausorik pauso. Bidean jarri gara dagoeneko.

Argi dugu, poliki bada ere, Erreterria-Oreteran zenbait pausotxo eman dugula eguneroko erabileran, eta euskaldun askotxoren buruan halako galderak sortarazi ditugula. Halaber, ezin dugu gure herriko ordezkari politikotik guztiek duten zeregina ahaztu, eta horientzat ere bihoa lanerako deia, norberak dagokion tokitik.

Euskaldunon elkarte honen zeregina ere bada herriko elkarte, entitate eta taldeak hizkuntza normalkuntzari begira lanean jartzea, horretarako elkarbizitzan aurreratuz: Udala, kultur elkarteak, kirol taldeak, euskaltegiak, ikastegiak, merkataria-
riak, lan mundua, ... Azken finean eta zalantza izpirik izan gabe, euskararen normalkuntzak denon lana ezinbestekoa baita. Zurea ere bai. Gainera ere, elkartean ez da lanik falta, eta beti lankidetzara ongi etorria izateaz gain, beharrezkoa zaigu.

Horregatik eta horretarako, animatu nahi zaituztegu euskararen mundura etortzera, Lau Haizetara elkartera hurbiltzera. Lau Haizetara euskaldunon elkartean gogo handiz lanean ari gara dagoeneko. Norberak bere lantokitik, etxetik, lagunartetik edo familiatik lan pixkat egin dezake. Denontzako aukera on bat dugu.